

Buruhausteetatiko zeharkaldia

Iñaki ODRIOZOLA

Lana


Olagarroaren alegoriazko algara ergelak
eraldaketa kafkiarretan
natura, kaiku, kaiku iharra bihurtzen.
Hegan egiteko ere balio ez duten
hegamotzek,
hega-mozleen mundura, boteretsu, habia
guztietara nahi abiatu.
Aireratze leloa,
lelori lai lelo, leloa zara leloa
kontzientziaren ironia,
irudi onirikoaren horitze zoria,
norberaren zuritze arrazionalak
inkontziente beltza ezkutarazi.
Sokrates azalzuriak sorturiko entitateen
irudikapena
asto gorotzetan ordaindu.
Tekne bizigabea, inoiz hilko ez den
hutsune erailezinari
haginka ezin egin.
Olagarroaren alegoriazko algara
ergelaren atzean
arnasestuka inoiz egongo ez den
zakil odoltsu epela, ezintasunean,
hitzetara loturiko lapiko koipetsua,
zentzugabeko diskurtso koherentea,
ezintasuna, ezin eta asuna, astun,
lizunkeriaren errepresio teoriko
gizarteratua.
Zein txindurri ausartu da,
-esan du Boterek-, nire buru zefalopodoa
era horretan mingosten?

Adi!

Adi! Aditu!
Zenbat ustezko aditu potolok, kolorezko
gorbaten atzean babesturik,
adierazi du,
dudarik gabe, epairik gabeko sententzia:
adiarazteko ahalmenik ez dagoela.
Adierazle guztiak,
iritzi iratzargarriak, lotaratu, lotu,
lotarazi dituzte
soka mediatiko eta autozentsura irenstean.
Loturak adierazten dira banako
bakoitzaren jokaera bikoitzean.
Kanten autoagintearen adierazte
pendularra,
alde batetik bestera, beti ere toki
berberaren berriemaile betierekoa.
Popper-en gizarte irekian,
gora begira jarririko laban zorrotzean,
oinutsik, ustezko hiritarrak, pausoz- pauso,
behatzak, banaka-banaka, galtzen ari dira,
bi aldetara, amildegietara erortzean.
Bitartean, gorteko asketan janari
errazaren inguruan
narkotizaturiko hitz jarioek,
aho lardatsetan jariakor,
pentsamendu bakarrean denak
adierazpen berdinak,
adierazpen berber-berba era berebean,
egiteko askatasuna izango dute:
Bla, bla, bla... ka, ka, ka... kaka

Urrezko ardi-larrua

Urrezko ardi-larruaren bila denok gara
Jasonen argonauta,
inoiz lortuko ez den utopia doratuak
besteekiko lehian, lupus, otso bihurtu gaitu
elkarrekiko aurkakotasunaren baleak
irensten,
Jonasen lagun zen jainko juduak
askatuko ote gaituen itxaropenik gabe.
Burdin eta ispiluzko mundu hotz eta
beldurgarrian
mailu uxatzailerik gabe, Thor
norvegiarraren heriotza-ziurtagiria
eskuan dut,



eta oharkabean,
Eskizo, jainko unibertsal bihurtu
dugula ohartu naiz,
sinesgabetasunaren finkaezinean.
Bakardadeari beldur,
jainko berri ordezkatzailen beharrari
lotu gataizkio, berriz ere,
gorputz eta existentziarik gabeko arima,
garun eta elektra korrontearen emaitza
lizuna,
Elektraren maitasun eragotzia
gorotzetan uhertzen doan bitartean.
Autistek arrazoi dute
arrazoigabekeria ezkutuan ezkututzen
direnean,
hitza galduz,
besteenganako sentimenduak galduz,
berunezko ingurune astun eta izugarrian
bizitzak eman dizkion indar urrituak
norberarentzako gordez,
iraupen jasangaitza,
zentzu askorik ez duten beste zenbait
egoera bezala,
ziurtatzearren.

Itxurakeria gordina

Itxurakeria gordina,
Kunderaren izakiantzeko arin, jasanezina,
azaleko gardentasunaren azpian,
ezer ere ez, ezereza, ezereza ere ez,
esnerik gabeko esnegain lodi eta koipetsua,
maskara irakinezina,
hutsunerik gabeko azalakeria hutsa.
Sentimendu eta sentipen estereotipatuen
manifestazio plastiko,
azaleratze hotza.
Sakonerarik gabeko polietilenozko
plano bidimentsionala, plano afin fina,
moral bikoitz eta estatu arazoizko plano fin
afinak,
amaigabeki, azpirik gabeko gainazalean
hedatuz.
Izaterik gabeko amets,
entitaterik gabeko irudikapena,
existentziarik gabeko subjektu sartriarra,
edukirik gabeko bihurtu den balizko eta
noragabeko bidaia astrala.
Gonazpiko urdin transluzidoaren azpian
ezer ere ez, ezereza, ezereza ere ez,
mutxurdinaren gozamen antsia alferrik
galdua,
mutilzaharraren zakilaren azken
bulkadaren bakardadea,
hazi emankorraren eman ezina,
gorputzik gabeko antzeppen liluragarri
bezain helezina,
enborrari moztutako oina, oinaren oinaze,
ehortzi eta ondorengo min ukaezina.
Itsuaeren ikusezintasun aldaezina, kolorega-
betasun ulergaitza,
patuaren onartze estoikoa,
baretu beharreko ekaitza,
formula matematiko soila, modelagaitza,
errealitatetik ihes egina.
Esanahirik gabeko sinboloen zeinu zen
mundu platoniko hilezkorra
deuseztatu ondoren
adierarik gabeko diseinu paregabeari,
Fenix hegalariaen betirako heriotzaren
ondoren,
haren errauntsak itzaliz, eztarri lardoetatik
errauspena
Uholdeka darrio:
Demokrazia deritze.

Iñaki Odriozola. 1961 ean jaioa, Elgoibarren. Filosofia irakaslea Elgoibarko institutuan. Aurtentzen, Idazle Eskolako 1. go maila egin du.